

1. KOMUNIKAZIOA: GARAPENERAKO GIZA BALIABIDE ASKOTARIKOA

1.1. KOMUNIKAZIOA: GIZAKIAREN JOKO KOGNITIBO ETA AZALTZAILEA

- Komunikazioa: garapen-urrats ororen oinarrian dagoen harremana.
- Komunikatzea: zerbait komunean izatea edo jartzea.

Komunikazioa: ikasi eta azaldu

- Komunikazioa: gutxienez biren artean ematen den harremana, informazio-truke bat oinarrian duen, edozein delarik informazio horren edukia eta edozein delarik trukerako erabilitako modu eta bidea.
- Gizakiontzat, harremanetarako bide eta informazioa trukatzeko bide izateaz gain, ezinbesteko lantresna kognitibo eta azaltzailea.

Ordezkapena

- Komunikazioa, ordezkapenean oinarritutako harreman-prozesu bat da.
- Hitzak ez du bere osotasunean ordezkatzen adierazten duena.
- Gauzen ordezko dira hitzak.
- Zerbait beste zerbaiten ordez ematea da komunikazioaren giltza.
- Komunikatzea = ordezkatzea

Komunikazioaren espazioak

- 3 espaziotan gauzatzen da prozesua:
 - Mundu erreala: egitateen eta gertaeren mundua.
 - Mundu norberegantua: mundu interpretatua, egitate beraren aurrean denok ez baitugu modu berean erreazkionatzen.
 - Mundu besterenganatua: esportatzen duguna. Diskurtsoen bidez besteenganaino helarazten duguna. Mundu komunikatua.
- Elkar elikatzen dute 3 espazioek.

1.2. ERREDAKZIOA ETA LAN-ANTOLAMENDUA

- Komunikazioaren bigarren espazioan kokatzen da hedabideen mundu produktiboa.
- Egunkari bateko egitura 3 arlo:
 - Sail administratiboa:
 - Esparru zabala.
 - Azpiatalak: finantza-saila, giza baliabideak, arlo komertziala.
 - Argitalpen- edo erredakzio-arloa
 - Egunkariaren beraren edukia landu: produktu informatiboa.
 - Erredakzioa kazetariak lan egiten duten leku nagusia.
 - Kazetariak erredakzioan elkartu eta zer argitaratuko den erabaki.
 - Produkzio-arloa:
 - Egunkaria inprimatu eta argitaratu.
 - Jarduera teknikoa: egunkaria argitalpen bihurtzeko azken fasea.

1.2.2 Kazetariak eta hierarkia erredakzioan

- Kazetariak: hedabide batean idatziz zein irudien bidez informatzeko edo iritzia sortzeko eginkizuna duten profesionalak.
- 3 multzotan:
 - Erredaktoreak:
 - Informazio edo albiste bihurtzen dituzte gertaerak.
 - Erreportariak:
 - Ikertu, albisteak osatu, elkarrizketak eta erreportajeak idatzi.
 - Editorialgileak:
 - Editorialak idazten dituzten kazetariak.

1.3. DUINTASUNA LANBIDEAN, ETIKA PROFESIONALA

- Kazetariak etengabe mundua interpretatu behar du, ondorioz, behin eta berriz hautaketa-lana egin behar du.
- Kazetariak argitara eramaten ditu bere ustez datu aproposenak direnak, hitz egokienak aukeratzen ditu sortuko duen testurako eta toki egokienean kokatzen ditu egunkariaren orrialde batean.
- Kazetaritza: etengabeko aukeraketa ezaugarri duen lana, hedabideen ustezko objektibotasuna suntsitzen duen lana, intentzioak markatutako eginbearra alegia.
- Etengabeko interpretazioak gidatzen duen eginbear hori duintasunez, erantzukizunez, , inpartzialki, iturriak kontrastatuz eta egiari zor zaion errespetuaz egitea eskatzen zaio kazetariari.

1.3.1. Legea eta haren mugak

- *Sekretu profesionala*
 - Informazio-iturriak ezagutzera ez emateko kazetariak duen eskubidea.
 - Erabilitako euskarriak sekretupean gordetzeko eskubidea.
 - Funtsa: informazio librea bermatzea eta kazetariak bere jarduna burutzeko berme guztiak izatea.
 - Espainiar Konstituzioan jasotzen bada ere, ez dago legez arautua.
- Kontzientzia-klausula
 - Helburua: kazetariaren independentzia bermatzea euren lanbide-eginkizuna gauzatzean.
 - Kazetariak lan egiten duen komunikazio-enpresan, harreman juridikoak eten ahal izango ditu:
 - Lanean diharduen mezubidean funtsezko aldaketa gertatzen denean informazio-joeran eta ideologia-ildoan.
 - Enpresak langileak lekualdatu eta informatzailearen lanbide-joera nabarmen haustea dakarrenean.

1.3.2. Kode deontologikoa

- Kazetaritza-jarduerari eragiten dion arau multzoa.
- Informatzailearen kontzientzia profesionala erregulatzen duen kazetari-lanbidearen arau bilduma.
- Ez du lege izaerarik.
- Borondatezko aplikazioa enpresa zein kazetariarentzat.
- Kalitatezko kazetaritza egin nahi bada, ezinbestekoa aintzat hartu eta jarrera etikoz jardutea.

Egiatasuna eta informazioa jasotzeko eskubidea bermatu

- Egiazkoa eta osoa den informazioa jasotzeko gizarteak duen eskubidea. Kazetariak ez du inoiz gezurra den informaziorik kaleratuko.

Informazioa modu zilegian lortu

- Kazetarian ikertu egingo du gertaeren egiatasuna frogatzeko, legearen mugen baitan.

Norbanakoen eskubideak errespetatu

- Gizaki orok tratatu berbera, bereizkeriarik gabekoa.
- Pertinentea ez bada, ez die aipamen berezirik egingo arrazari, erlijioari, sexu-aukerei...
- Gutxitutako taldeak kaltetu edo diskriminazioan lagundu ditzaketen topikoak sahiestu.

Informazioa eta iritziak banatu

- Informazio-generoetan ez zaio kazetariari bere iritzirik onartuko.
- Distantzia hartuko du datuak ematerakoan eta deskribapen zehatza egingo du.
- Protagonisten iritziak argi agertuko dira: formula desberdinak

Argazki eta irudien tratamendua

- Irudiek errearen isla ahalik eta zintzoena jasoko dute, inoren intimitatea eta ohorea kalte ditzaketen irudiak zabaltzeko orduan.
- Adingabeak eta hildakoak zehurtiaz jokatu, sen komuna erabiliz eta sentsazionalismotik ihes eginez.

Kazetariaren lan-baldintzen duintasuna

- Lan-baldintzak duintzeko haunarketa serioa egitea ezinbestekoa.
- Langileak proiektuetako zutabe eta oinarri nagusiak.
- Kazetariari lanean jokabide duina eta jarrera etikoa eskatzen zaion moduan, haien lana arautzen duten baldintzetan duintasuna exijitzeko eskubidea dute.
- Prentsa idatziak gero eta gutxiago saltzen du. Halaber, hedabideak talde mediatiko handietan batzea ohikoa bihurtu.

2. KAZETA GENEROAK

KAZETARITZA-GENERO IDATZIAK:

1. Informazio-generoak
 - Albistea
2. Interpretazio-generoak
 - Erreportajea
 - Elkarrizketa
 - Kronika
 - Analisia

3. Iritzi-generoak

- Editoriala
- Iritzi-artikulua
- Zutabea
- Kritika
- Gutunak

1.INFORMAZIO-GENEROAK

- Helburua: informatzea
- Iritzirik edo baloraziorik ez
- Genero nagusia: ALBISTEA
 - Zehatza
 - Naturala

2.INTERPRETAZIO-GENEROAK

- Ezaugarriak: estilo askeagoa, aurrekariak eta testuingurua ematen dira, baita balorazioak ere.
- Generoak: erreportajea, elkarrizketa, kronika

ERREPORTAJEA:

- Informazioa sakon, testuinguruan
- Hizkuntza: estilo literariogoa: adjektiboak, kontaketa deskriptiboak, baliabide narratiboak
- Egitura aske eta konplexua: sarreratxoa, tartekia, zatidurak...
 - Titulua: deigarria eta informatiboa
 - Azpitulua eta aurretitulua: elementurik nagusienak aipatu
- Erreportaje motak:
 - Deskriptiboa: gaurkotasuna, datuak. Gertaerak aurkeztu ahala, sakonduz.
 - Ekintzazkoa: erritmo azkar eta aldakorra. Kontaera barnetik, kazetariak parte hartuko balu bezala. Bidaia, gerra..
 - Ikerkuntzazkoa: jendeak isilpean eduki nahi dituen gaiak. Espelikazioa gailentzen da (hizkuntza informatiboa). Gaur egun gutxi egiten da.
 - Aipuduna: pertsonen iritziak eta aipuak tartekatuta. Narrazioa indartzen du hitzez-hitzezko aipamenak.
 - Elkarrizketa. Motak:
 - Pertsonaia-elkarrizketa: nortasunezkoa edo iritzizkoa
 - Gaurkotasunezkoa: iritzia eskatzen da, gaurkotasunezko gaiet buruz
 - Kazeta-galdeketa: adituak diren edo ez direnei iritzia eskatzen zaie.
 - Kronika: kontaketa, batez ere informatiboa, baina kazetariaren interpretazioekin. Kazetaria lekukoa da. Motak:
 - Leku zehatzetako gertakariak
 - Aldi zehatz batean eginak (asteko kronika...)
 - Gaurkotasuneko gaiak

3. IRITZI-GENEROAK

Motak:

- Editoriala: hedabidearen iritzia. Espezialistek egin ohi dituzte.
- Analisia: sinadura du. Gai jakinaren inguruan, jakintsuaren ekarpena.
- Zutabea: komunikabideko lantaldekoa edo kanpoko.
- Iritzi-artikulua: gai bati buruzkoa. Gaurkotasunezkoa.
- Kritika: idazlan, film... bati buruzko iritzia.
- Zuzendariari gutuna: irakurleen iritzia.

3. EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO SEKTOREA

Euskaldun= euskaraz egiten dena

Euskarazko komunikazio esparrua definitzen duena **euskara** da

Euskarazko prentsaren historia

- Euskarazko kazetaritzaren hastapenak XIX. Mendea
- Euskarazko kazetaritzaren ibilbidea arazo ekonomikoek baldintzatu dute hasieratik
- Euskarazko kazetaritzaren atzean borondatezko lan handiagoa egon da beti, baita gaur egun ere
- 1834. urtean El Correo del Norte aldizkari liberalean.
 - Aldizkariaren helburua Gipuzkoako nekazariak ideia liberaletara hurbiltzea

6 data esanguratsu euskarazko prentsan

- **ZERUKO ARGIA**, 1919 (gaur egungo Argiaren aitzindari)
- **ARGIA**, 1921 (beste bat)
- **EGUNA**, lehen egunkaria euskaraz, 1937
- **Gu gara euskal prentsa** kanpaina, 1976
- **EITB**, 1982
- **EUSKALDUNON EGUNKARIA**, 1990an

ZERUKO ARGIA

- Euskarazko prentsaren dekanoa, hau da, zaharrena
- 1919an Iruñeko kaputxinoek (ordena erlijioso bat) argitaratu zuten lehenengoz. Orduetik, etengabe kaleratu da gaur egun arte (gaur egun Argia)
- Gorabeheraz betetako ibilbidea: zentsura, arazo ekonomikoak...
- Espainiako Guda Zibilean debekatu
- Iruñeko kaputxinoek 1954an berrargitaratu hilabeteka
- 1960an Informazio eta Turismo Ministerioak emandako agindu batek debekatu
- 1963an Zeruko argia eraberrituta birkaleratu
- Astero kaleratzen hasi eta informatibo bilakatu zem. Agustin Ezeizaren ekimenez
- Orduan ere zentsurarekin arazoak, baina lortu zuen pixkanaka bere bidea egitea
- 1980an Kaputxinoek Zeruko Argiaren jabetza langileen esku utzi
- Bide erlijioso baztertu
- Izena aldatu → Argia

ARGIA

- Lehenengo alea 1921an Donostian
- Karmeldar fraide talde baten ekimenez
- Euskara bultzatzea zen helburu nagusia eta euskaraz irakurtzera ohituta ez zeudenak euskara irakurtzen jarri nahi zituzten
- Ordura arte Ramon Maria Azkuek Ibaizabal eta Euskalzale aldizkari kulturaletan landutako ildo jarraitu zuen Argiak
- Astero 800 ale kaleratzen zituen
- Garai hartako masa-komunikabide gisa har daiteke, mass-mediak zituzten ezaugarri asko bere egin zituelako
- 1936ko Guda Zibilak betiko itxi zuten

EGUNA

- Lehen egunkaria euskaraz
- Espainiako Gerra Zibilean sortu zen
- 1937ko urtarrilaren 1ean sortu eta 6 hilabete iraun
- Gudariei sostengu morala ematea zuen helburu
- Ordura arte euskarazko prentsan izan zen ametsa frogatu nahi zuen: oso-osorik euskaraz egunero egunkari bat kaleratzea
- 10.000 ale egunero, asko gudarien arean banatzen zituzten
- Ideologia jeltzalea
- Zutabe informatibo nagusiak: gerraren inguruan hitz egin, faxismoaren aurka, euskal abertzaletasun jeltzalea zabaldu, Euskal Gobernuak defendatu, euskara eta euskal kultura zabaldu, kristautasuna hedatu eta nekazariak defendatu
- Itxi baino egun bat lehenago Bilboko Babes Hesia hautsi zuten tropa frankistek

GU GARA EUSKAL PRENTSA

- Francoren heriotzaren ostean, Euskal Herrian bestelako hedabideak sortu eta batzuk betiko transformatu ziren
- Deia eta Egin egunkariak jaio, baita Garaia, Puntu y Hora de Euskal Herria aldizkariak ere
- Hedabide berria ia denen hautu linguistikoa **gaztelania** izan zen
- Titulu hau jarri zioten Zeruko Argia eta Anaitasunako kazetariak eta eragileek abian jarritako erreflexio- eta analisi-kanpainari
- Helburua: euskal prentsa zer zen definitzea, euskara txertatzea kazetaritza modernoaren barruan, ulertuta hedabideek eurek euskararen hauspoa izan behar zutela, beste batzuen artean
- 1976an orduko Zeruko Argiak eta Anaitasunak
- Ziotenez, euskaraz entsatuta euskaraz egin zen euskal prentsa
 - Euskaraz bizi nahi zutela
 - Informazioa bera ere euskaraz nahi zutela
 - Ez hori bakarrik, euskarazko gizarte-komunikazioari modernotasuna eskatzen zioten: edukien aldetik nahiz formaren aldetik; eta euskaraz
- 24 orduak euskaraz antolatu
 - Irratiek ere hartu zuten euskarazko kazetaritzaren aldeko konpromisoa
 - 1976an lehendabizikoz emititu zuen irratia euskaraz 24 orduetan etenik gabe

- Errebindikazioa eta festa bildu ziren Donostiako Belodromoan, Donostiako Loiolako Herri Irratiak eta antolatutako irrati-maratoi euskaldunean
- Euskarazko kazetaritza sustatzeko ahalegina ez da iragan hutsa, egitasmo historikoa baizik

EUSKARA HEDABIDE PUBLIKOETAN

- 1982an Eusko Jaurlaritzak EITB sortu
- Eusko Legebiltzarraren agindupean jarri zuen irrati-telebista publikoa
- Euskal Irrati Telebista Euskal Autonomia Erkidegoko telebista eta irrati publikoaren erakundea da Ipar euskal herrirako eta Nafarroako foru erkidegorako ere emititu ohitu du, legeak ezarritako zailtasunak zailtasun
- Eitb honela dago osaturik:
 - EITB: talde osoaren zerbitzu komunak barnean hartzen dituen enpresa-atala
 - TELEBISTA (ETB) Donostiako Miramonen eta Bilboko Garellanon bere egoitza nagusiak
 - 1982ko abenduaren 31an hasi
 - Honako kate hauek kudeatzen ditu: ETB1, ETB2, ETB3, ETB4...
 - Irratia (EI) Donostiako Miranon eta Bilboko garrelano
 - 1982an hasi euskaraz
 - Hauek kudeatu: euskadi irratia, radio euskadi...

EUSKALDUNON EGUNKARIA ETA BERRIA

- 1990an Euskaldunon Egunkaria, egunkari pribatu gisa, herri-sustapenak bultzatuta, akzionariatu zabal batekin (akzioak herritarrek erosita)
- Euskaldunon Egunkaria sortzeko garaian, garrantzitsua Argia astekariak egindako lana
- 2003an Egunkaria itxi Guardia Zibilak. Hainbat langile eta sustatzaile atxilotu
- ETArekin zerikusia izatea leporatu
- Hurrengo egunean Egunero kaleratu zuten Egunkariako langileek
- Kasu horretan ere, akzionariatu zabal batek bultzatu zuen euskara hutsezko egunkariaren proiektua
- EKT-SA enpresa sortu zuten (gaur egun Berria kaleratzen duen enpresa)
 - Eskualdeetako Hitzak ere enpresak
 - Hamaika telebistaren sortzaileetako bat

EUSKARA IRRATI, TELEBISTA ETA SAREAN

- GOIENA, 2000
- ARROSA IRRATI SAREA, 2002
- HAMAIKA TELEBISTA, 2008

4. KAZETA-ESTILOA: ZEHAZTASUNAREN ARGIETAN

- Idazten hasi baino lehen kazetariak ondo jakin behar du zer eta nola esango duen
- Idaztea aukeraketa prozesua da, hautu bat
- Erretorika tradizionalak lagundu egiten du prozesu horretan
- Idatzizko eta ahozko konposaketaren arta da erretorika
- Erretorika klasikoa hiru zatitan banatuta dago
 1. Inventio
 - Erretorikaren lehen zatia

- Kontatu edo idatzi behar duen gaiari buruzko informazio eta datuak bilatzen ditu kazetariak
 - Datu eta xehetasun horiek ondo aztertuko ditu eta hedatu nahi duen albisteari ondoen egokitzen zaizkionak aukeratu
 - Datuak interesgarrienak izango dira, garrantzi handikoak; beste datu guztiak alboan utziko ditu.
2. Dispositio
- Inventionan bildutako datuak ordenatu beharko ditu kazetariak
 - Informazio eta datu zehatz bakoitzari hierarkia jakin bat emango dio
 - Idazten hasi aurretik beharrezkoa da buruan ideia bat izatea
 - Horren ondoren gomendagarria da.
3. Elocutio
- Aurreko bien ondorioa
 - Diskurtsoa edo testua osatzea/sortzea dakar
 - Inventionan bildu eta dispositioan ordenatu eta gero, narrazioa sortuko da
 - Testua idatziko du esku artan duen materialean oinarrituz
 - Arau estilistikoak ondo ezagutu, menperatu eta erabili beharko ditu, lengoia kazeta estiloaren oinarritzko tresna baita

KAZETA-ESTILOA

- Argia
 - Idazteari ekin baino lehen kazetariak ondo jakin behar du zer eta nola esango duen
 - Testuaren ideiak eta egitura argi izan behar ditu
 - Informazioa helaraztea eragotziko duen elementu ilunik gabe
 - Testua modu zuzenean idatzita egotea, logika batean oinarrituta
 - Testua ondo garatuta dago, inolako anabasarik gabe
 - Kazeta testua irakurri, eta lehen irakurraldi horretan edukia guztiz ulertzen ez bada, testua ez da zuzena
 - Kazetariak argi ulertzen ez badu, nola ulertuko du gero irakurleak?
 - Irakurleari erraztu egin behar zaio irakurketa
 - Kazeta testuak interpretazio bat eta bakarra baino ez du behar
 - Kazetariak burbuila baten barruan bizi dira sarri
 - Arriskua: gainontzeko herritarrak ere, bera bezain ondo informaturik daudela pentsatzea
 - Eta premisa faltsu horretatik abiatuta idaztea, irakurleari modu guztiz argi eta zehatzean eman gabe errealitatearen berri

“BEZa igoko dute 2019an, defizitaren helburua bete behar dutela argudiatuta”

EGOKIAGOA: *“2019an BEZa igoko dute Hegoaldean, defizitaren helburua bete behar dutela argudiatuta”*
- Zehatza
 - Irakurleari eskaintzen dizkion informazioa, datuak eta xehetasunak mugatu behar ditu kazetariak
 - Gertakari, egitatea edo informazioaren berri emateko eta haren zergariak ulertzeko ezinbestekoak diren galderak (5 W)
 - Datu zehatzak ematen saiatuko da kazetaria
 - Horrexek frogatuko du, hain zuzen, informazioaren benekotasuna albistearen garrantzia
 - Ahal dela, bazter utzi *zenbait, batzuk, hainbat, inguru* eta halakoak
 - Ez dute ezer konkreturik adierazten
 - Kazetaria zalantzan badago testuaren barruan berba jakin bat jartzea ezinbestekoa ote den

- Hitza testutik kendu, ezabatu
 - Gero, ikusi berba hori barik testua herren dagoen edo ez
 - Hau guztia bereziki garrantzitsua da adjektiboak erabiltzean
 - Kazeta testu batean adjektiboak ez ditugu erruz erabili behar, batez ere albistea idazteko garaian
 - Erreportajeetan, kronika, elkarrizketetan eta abarretan, ordea, kazetariak ez du hain zurrun jokatu.
- Xumea
 - Kazeta testuak xumeak bai, baina arinkerian erori gabe
 - Oreka bilatu behar
 - Oinarri sendoak izango ditu
 - Ez da astuna izango
 - Kazetaritzak informatzea du xede
 - Beraz, kazeta estiloa xumea, bizi eta ulerterraza
 - Kazetariak hitzak aurreztu
 - Gutxi erabiliko ditu
 - Hitz gutxi horiekin inork baino hobeto emango du gertatukoaren berriz
 - Errealitatea ahalik eta modurik fidelenean islatuko du ahalik eta hitz zuzen gutxienekin
 - Kazetariak ondo erabiliko ditu hitzak, esaldiak
 - Esaldi luzeak eta laburrak konbinatuko ditu, estilo bizia eta erritmo bizkorra lortzeko
- Erakargarria
 - Kazeta testua irakurterraza izan behar da
 - Are garrantzitsuagoa da euskaraz idatzitako testuetan
 - Salbuespenak salbuespen, oraintsu arte euskaldunok ez gara ohituta egon euskaraz irakurtzera, geure eskuetan euskarazko prentsa izatera
 - Euskaldun batek ulertuko duen testua idatzi behar da
 - Ez da batere alfabetatu gabekoentzat idatzi behar
 - Pedantekeriarik ez!
 - Zergatik idatzi “*daugin astean*” “ *datorren artean*” idatzi beharrean?
 - Euskarazko testuak ez ditu irakurleak uxatu behar
 - Errazagoa gauzatzen da kazeta genero jakin batzuetan beste batzuetan baino

AHOLKU PRAKTIKOAK (BERRIA)

- LABUR
 - Labur ez da motz: elementuak beren neurrira ekartzea da
 - Luzamendutan ibiltzea kaltegarria da
 - Esaldietan, neurrian erabili behar dira hala nola menpeko perpausak, batez ere erlatiboak
- ADITZ ESTILOA, BIZIAGOA
 - Aditz estiloa egokiagoa da kazetaritzako testuetarako
EZ→ Bakterioaren *azterketa burutzen* ari dira
BAI→ Bakterioa *aztertzen* ari dira

AKTIBOA, PASIBOA BAINO HOBEA

- Kazetaritzan, ekintzak, gertaerak eta esanak izaten dira berrien oinarriak
EZ→ Hamar lagun atxilotuak izan ziren Elgoibarren
BAI→ Guardia Zibilak hamar lagun atxilotu zituen Elgoibarren

ORAINALDIA, LEHENALDIA BAINO HURBILAGOA

- Orainaldia hobea da kazetaritzarako, biziagoa baita, hurbilagoa
- Testu barrenean baino garrantzitsuagoa da titulu elementuetan modua aurkitzea orainaldia erabiltzeko

INPERTSONALTASUNA

- Esaldi inperzonalek indarra kentzen diote testuari
- Ezkutatu egiten dute agentea edo egilea

KAZETARIA EZ DA PROTAGONISTA

- Kazetariak ez du agertu behar albistean
- Ez dute lehen pertsona erabiliko
- Ez singularrekoa (ni), ez pluralekoa (gu)

EZ→ Halakok esan digu

BAI→ Halakok esan du

5. ALBISTEA, INFORMAZIOAREN OINARRI

5.1 DEFINIZIOA

- Informazio-genero garrantzitsuena, nagusia, erabiliena eta funtsezkoena. (Diaz Noci)
- Kazetaritzaren oinarriko generoa, besteak elikatzen dituen eta interes kolektiboa edo orokorra duten gertaerak ezagutzera emateko xedea duena. (Carlos Marin)
- Gaurkotasuna gehitzen dio Martin Vivaldik.
- Laburbilduz:
 - Gaurkotasunari estu-estu loturiko informazio generoa.
 - Gertaera bati lotutako berria da albistea, zer gertatu den ulertzeko oinarriko testua.
 - Kazetaritza klasikoan, 5 galderari erantzun: nor(k); zer, non, noiz eta zergatik. Nola (batzuetan)
 - Gaur egun ez da ezinbestekoa horiei erantzutea.
- 3 ardatz nagusi:
 - Gaurkotasuna: ez da kontzeptu itxia, hedabideak duen aldizkakotasunaren arabera ulertzen baita. Gauza zaharrei buruz hitz egin daiteke baldin eta zerbait berria esateko dagoen. Ez dakigun zerbait kontatzea da, hau da, irakurleak ez dakien datu bat kontatzea. Abiapuntua, dakigun azkena da.
 - Interes orokorra: izatez, publikatu ostean jakingo dugu gertaera horrek sorrarazi duen interesa. Halaber, interes orokorra hedabidearen irakurleei lotuta dagoen kontzeptua da.
 - Gertaera edo egitatea: gertaera batean du kazetaritza-albisteak oinarria, eta gertaera edo egitatea da albistearen abiapuntua.

Albiste motak

Gertakaria jazotako moduaren arabera:

- a) **Bat-bateko albistea:** ustekabean gertatzen diren jazoerak edo egitateak lantzen dituen. Egunerokotasuna hausteko duen gaitasunak markatzen du informazio horren izaera.
- b) **Aurreikusitako albistea:** ezustean gertatu izanaren itxura badu ere, gertakaria datorrela susmatzen da, jazo aurretik.
- c) **Programatutako albistea:** albistearen garapena alde aurretik da ezaguna.

Kontatzen den edukiaren araberakoak:

- a) **Giza intereseko albistea:** irakurlea hunkitzea bilatzen dute. Izan ere, pertsonen giza alderdia eta alderdi psikologikoa lantzen dituzte.
- b) **Interes publikoa duen albistea:** gizarte osoari eragiten dioten gaiak lantzen dituzten informazioak.

Erabilitako iturrien nortasunaren araberakoak:

- a) **Albiste ofiziala:** ordezkariak publikoak duten pertsonak dira informazio horien iturri. Informazioa emateko baimendua dagoen pertsona izan ohi da informazio-iturri.
- b) **Albiste ofiziosoak:** iturri ofizialak dira informazio iturri, baina iturriaren nortasuna anonimatuari babesten da.
- c) **Albiste estraofizialak:** instituzio-sistemaren informazio-igorpenari lotuta ez dauden iturrietatik datozen albisteak dira. Behin-behinekoak izan ohi dira iturri estraofizialak.

Erabilitako iturriaren gertutasunaren araberakoak:

- a) **Lehen eskukoak:** kazetariak berak zuzenen lortu du informazioa iturriarengandik.
- b) **Besteren bidezkoak:** zuzena ez den beste kanal batetik heldu zaio informazioa kazetariari edo hedabideari.

Informazio-funtzioaren araberakoak:

- a) **Zuzena:**
 - Datuak modu aseptikoz, funtzionalez eta ikuspegi inpersonalez ematen duten informazioak. Istorioa zuzenen kontatzen dute.
 - Berriki gertatu denaz informatzeko xedea dute, irakurlearen interesa erakartzeko.
 - Agentzietatik eratorritako albisteak izaten dira maiz.
- b) **Interpretatiboa:**
 - Gertakari buruzko informazioa emateaz gain, jazoeren inguruko datuak interpretatzen ditu berriemaileak.
 - Egun gero eta gehiago.
 - Ez dago albisterik.
- c) **Sormenezkoa:**
 - Helburua: irakurlea entretenitzea, albiste zuzen baten informazioa osatzea, eta hizkuntzaz baliatuz narrazio modu berriak sortzea.
 - Garrantzi handiagoa du berriaren aurkezpenak eta idatzita dagoen moduak, gertaerak berak baino.
 - Ia-ia literatura.

5.2 SARRERA EDO LEHENENGO PARAGRAFOA

- Tituluaren ostean, sarrera edo lehenengo paragrafoa da garrantzitsua.
- Informazioaren elementu nagusiak bildu.
- Sarrera ez da tituluaren edo azpitituluaren jarraipena. Ez du tituluaren beharrik ulertzeko. Halaber, sarreran tituluari aurreratutakoa aterako da. Ondorioz, sarrerak eta tituluak bat egingo dute beti.
- Ez da albistearen laburpena.
- Sarrerak irakurleari gertaeraren berri izateko aukera ematen dio, albiste osoa irakurri gabe.
- 2 helburu:

- Albistearen elementu funtsezkoenak irakurleari modu erraz, azkar, argi eta ulergarriak eskaini.
- Irakurlea bereganatu testua irakurtzen jarraitzeko.
- Gertaera edo diskurtso baten ideia nagusia jaso. Esandakoa ez da gorputzean errepikatuko.
- Generoaren arabera, sarrerak ez ditu ezaugarri berberak bete behar.

Kazetaritza klasikoaren 5 W-en formula

- 5 W-en formularen arabera lehenengo paragrafoko datuak: nor(k), zer, non, noiz eta zergatik.
- Gaur egun ez da derrigorrezkoa guztiei erantzuna ematea baina garrantzi gutxienean duten elementuak bukaeran agertuko dira.
- Orokorrean orden honetan erantzuten dira galderak:
 - Nor eta zer: garrantzi berezia sarreretan
 - Noiz eta non: garrantzi berezia kazetaritza interpretatiboan
 - Non eta noiz: inoiz ez hasieran, salbu ez badagu hori nabarmendu nahi
- Adierazpena:
 - Zer:
 - Ohiko albisteetan elementu nagusia.
 - Gehien agertzen den galdegilea.
 - Sarrera egokia izan dadin, ezinbestekoa.
 - Galdegile garrantzitsuena bada lehenengo paragrafoa galdera horri erantzunez hasi.
 - Tituluan eta sarreran ZER elementua nabarmentzen da.
 - Nor(k):
 - Giza elementuari erreferentzia.
 - Protagonista ezaguna bada, zer galdegilea baino garrantzitsuagoa izan daiteke.
 - Noiz:
 - Irrati eta TBan prensa idatzian baino garrantzitsuagoak, egunkari digitalak sortu arte.
 - Tituluaren lehenengo hitzak noiz galderari erantzuten dio.
 - Non:
 - Gertakarietan garrantzi handikoa.
 - Ez da ohikoa sarrerako pasartean non galdegilea agertzea.
 - Zergatik eta nola:
 - Lehenengo edo bigarren paragrafoan. Sarreraren hasieran ez.

Sarrera motak

- Sarrera modu batean edo bestean egitea kazeta-generoak agintzen du. 3 nagusienak:
 1. Sarrera zuzena:
 - Albisteetako ohikoa.
 - Lehen lerroketan oinarritzko elementuen berri ematen du.
 - Lerrokada bakarrean 5W-ei erantzuna ematen saiatu.
 - Datuen interpretaziorik apenas.
 2. Zeharkako sarrera:
 - Erreportaje edo kroniketan sarri.
 - Tituluan eta azpituluan jasotako ideiarik ez da islatzen sarreran.
 - Hasieratik ez du oinarriko informaziorik ematen.
 - Tituluak eta sarrerak ez dute guztiz bat egiten.
 3. Interpretazio-sarrera:

- Balorazio eta interpetrazio-elementuak.
- Hasieratik gogoetarako gonbitea egiten zaio irakurleari.
- Erreportaje, kronika eta analisietan.

5.3 SARRERAK ONDO IDAZTEKO AHOLKUAK

- Sarreraren funtzioa: irakurlea kateatu eta irakurtzen jarraitzeko grina piztu. Horretarako:
 1. Zuzena, argia, laburra eta erakargarria. Sarrera irakurtzean, irakurleak buruan pentsamendu bakarra izatea lortu behar da.
 2. Sarrerak tituluarekin bat egin.
 3. Beregaina: ez du hurrengo paragrafoen beharrik ulertua izateko.
 4. Esaldi osoek eta ondo ordenatuek osatuko dute: subjektu + aditz bat + predikatua. Menpeko esaldirik ez irakurketa zaildu.
 5. Adierazpenekin hastea ez da komeni.

5.4 ALBISTEAREN EGITURA

- Albistearen baitan, sarrera da elementu garrantzitsuenak. Baina, gero erabiliko diren datuak ordenatu egin behar dira, erabiliko den generoaren arabera.
- Ideiak ordenatu eta testuari forma ematen hainbat egitura kontakizuna azaltzeko egokiena aukeratuko du kazetariak.
- Ez da ohikoa ordena kronologikoari jarraitzea kazetaritza-interesaren arabera.
- Daturik garrantzitsuenak hasieran, besteak amaieran.

Piramide irauliaren egitura

- Kontakizunak gainbeherako tentsioaren egiturari jarraitzen dio informazio garrantzitsuenak lehenengo paragrafoan, hurrengoak garrantziaren arabera ordenatu.
- Kontakizunaren ordena kronologikoa hautsi.
- Abantailak:
 - Irakurlearentzat:
 - Hasierako paragrafoak irakurrita gertaeraren daturik nabarmenenak ezagutuko ditu irakurketa erraztu.
 - Kazetariarentzat:
 - Lana erraztu:
 - Datuak sistemizatzen lagundu
 - Datua berriak agertu ahala, testuan modu errazean txertatzeko aukera eskaini.
 - Testu informatiboak sortzeko mekanika azkar ikastea ahalbidetu.
- Kazetaritza modernoan egitura hau alde batera uzteko joera irakurleari zerbait gehiago eskaini: interpretazioa, analisia, balorazio-elementuak...

Egitura kronologikoa

- Gertaeren ordena kronologikoa errespetatu.
- Ez da oso ohikoa albisteen erredakzioan.
- Tituluak jasotzen duen ideia kronologikoki lantzen du albistek.

Egitura homerikoa edo harea-erlojuaren egitura

- Hasierako paragrafoan datu garrantzitsuenetako batzuk emango ditu eta bukaerarako gorde garrantzitsuak diren beste batzuk.
- Erdiko paragrafoak trantsizio-elementu
- Editorial, kronika eta erreportajeetan.

Nobelaren egitura

- Eleberriek duten egitura bera gertaeren kontakizuna egiteko.
- Bigarren mailako datuak abiaburu pixkanaka tentsioak gora egin, bukaera datu garrantzitsuenekin osatu arte.
- Irakurlea aspertzeko arriskua.

Informazioaren lepoa eta zatidura

a) Informazioaren lepoa edo tie-in

- Sarreraren euskarri edo albistearen corpusaren osagarri gisa.
- Ez da albiste guztietan agertzen.
- Paragrafo batean edo bitan idazten da, sarreraren segidan.
- Komenigarria erabiltzea:
 - i. Albistearen protagonisten identifikazio asko daudenean eta nahasmena sor dezakeenean.
 - ii. Jarraipena duten albisteetan, aurreko egunetako gertaerekin uztartzeko.
 - iii. Testuinguruko datuak asko eta garrantzitsuak direnean.

b) Zatidura

- Idatzizko prentsan askotan, informazio-testu konplexu eta luzeetan batez ere.
- Testu osagarria, laburra eta albiste nagusiaren menpekoa.
- Zertarako erabili? Testu luzeak arintzeko, datuak gehitzeko edota gertaera testuinguruan jartzeko.
- Titulua du eta genero beregain gisa ager daiteke.

6. GOIBURUA: TITULATZEA, OSAGIAK ETA EREDUAK

- Goiburuetako elementuak irakurleak aurkitzen dituen lehen eduki narratiboak.
- 2 helburu: (modu etikoan uztartu)
 - Balio pragmatikoa: irakurlearen interesa piztu eta irakurlea albistean barneratzea.
 - Balio semantikoa: gerora etorriko den kontakizunaren aurrerapena.

6.1 GOIBURUA: IRAKURKETA GIDATZEKO AUTOBIDEA

- Kazetari-ofizioan, irakurlearen begiratua gidatzea ezinbestekoa.
- Autobideetako seinaleak dira goiburuko elementuak bidaiaren eta zentzuaren norabidea markatu.
- Zintak, tituluak, azpтитuluak, tartekiak... osorik izan behar dute ulergarri eta lagungarri kontakizun periodistikoan.
- Helburu bakarra: irakurleari laguntzea narrazioaren baitan murgildu eta bertan gozatzen.
- Elementu garrantzitsuak:
 - ZINTA:
 - Orrialdearen gainaldean idatzi ohi den testu laburra: hitz solte nahiz esaldi laburrak.

- Funtzioa: egunkariko edukiak ordenean jartzea.
- Noiz erabili?
 - Albiste batek orrialde bat baino gehiago hartzen duenean.
 - Egun batzuetan errepikatuko den albiste-sail bat denean.
 - Maiztasunez errepikatzen diren aktibitateetan.
- TITULUA:
 - Albisteak azaldu behar duen informazioaren oinarria jaso.
 - Sarrera laburbiltzen du.
 - Garrantzitsuena azaldu.
 - Sarrerak eta tituluak bat etorri.
 - Ez da titulu ona bi aldiz irakurri behar dena.
 - Tituluak izan behar du:
 - Laburra: esaldi laburra, trinkoa.
 - Zehatza: zalantzagabekoa.
 - Egiazkoa: albistearen egia esan behar du.
 - Iradokitzailea: irakurtzen jarraitzeko gogoia eman behar du.
- GOITITULUA ETA AZPITITULUA
 - Goiburua osatzeko elementuak dira, tituluaren ondoan agertzen diren horiek: aurretik edo atzetik.
 - Titulua baino luzeagoak.
 - Bigarren mailako informazioa aurreratzen dute.
 - Ez da ohikoa azpitulua eta goititulua albiste berean azaltzea.
 - Osoak eta ulergarriak dira, baita modu isolatuan ere.
- SARRERATXOA
 - Albistearen corpusaren aurretik eta tituluaren ostean idazten den testu esplikatihoa.
 - Albiste luzeen kasuan (gehienetan)
- TARTEKIA, TARTEKO TITULUA
 - Albistearen barruko corpusaren baitako titulu txikiak.
 - Testuaren zutabe bat hartzen dute.
 - Helburu bikoitza: informatihoa eta grafikoa.
 - Labur-laburra.
 - Corpusean agertzen diren elementuei buruz arreta pizteko.
- LEIHOAK
 - Testuan azaldutako eduki bat modu grafikoak nabarmentzeko espazioa.
 - Testuan azaldutako datu bat azpimarratzeko.
- ZATIDURA-TITULUA
 - Albistearen zati berezitu bati dagokion titulua.
 - Diseinuak, gaiak edo iritzia eta informazioa ongi bereizteko konpromisoz, bi edo zati gehiagotan ematen da albistea. Zati bakoitzak bere titulu propioa, titulu nagusiaren teilatupean.
 - Albistearen zati burugainak.
 - Ongi bereizi:
 - Tarteko titulua: albistearen gorputzean txertatzen dugun lerro bakarreko titulu modukoa.

- Zatidura-titulua: albiste handiaren baitan kokatzen den albiste txikiago baten titulua.
- ARGAZKI-OINA
 - Argazkiari gehitu ohi zaion testu laburra.
 - Hainbat funtzioa:
 - Argazkia datatzea.
 - Protagonistak identifikatzea.
 - Irudia hartua izan den lekua adieraztea...
- INFOGRAFIA-TITULUA
 - Marrazki azaltzailea, gertakariaren aspektu bat modu bisual batean azaltzeko.

6.2 TITULU MOTA NAGUSIAK

Titulu informatiboak

- Ideia oso bat azaltzen du.
- Irakurleak lehenengoan harrapatu behar du tituluak dioena.
- Albistearen mamia modu trinkoan.
- Esaldi osoa: subjektua + aditza + predikatua.
- Zer, nor(k) estiloko datuak ezin dira saihestu.

Titulu azaltzailea:

- Titulu informatiboa baino osatuagoa: luzeagoa eta datu gehiago.
- Ideia bat osorik azaltzen du.
- Zer eta nor(k) elementuak azalduko dira, ezinbestean.
- Ohikoa zergatik galderari erantzutea informatibotik bereizi.
- Ekintzaren azalpena gehitzen zaio.

Titulu adierazkorrak

- Oso erabiliak kazetaritzan.
- Ez dira informatiboak: helburu nagusia ez da informatzea.
- Irakurleari atenzioa ematen diote.

Titulu adierazgarria:

- Gehienetan ez du perpausa osatzen.
- Arrakastatsua izateko gertakaria aldez aurretik ezaguna
- Zalea hitz soltez eta zeinu grafiko horiturik azaltzeko.

Deigarria:

- Interpretazio- eta iritzi-generoetan.
- Helburua: arreta erakartzea hizkuntza-baliabideak.

Adierazpen-titulua

- Protagonisten hitzak titulura eramatean osatzen da.

- Oinarri: protagonistaren adierazpenak/aipuak sinesgarritasuna eman.
- 3 modutara protagonisten hitzak titulua:
 - Zuzen-zuzen: protagonistak esandakoa hitzez hitz, komatxoaren artean.
 - Zehar-aipu gisa: kazetariaren hitzetan jarrita protagonistak esan duena, komatxorik gabe.
 - Eredu misto gisa: aurreko biak uztarturik. Indar gehien duten hitzak komatxoaren artean.

7. AIPUAK

- Argi esan behar du kazetariak besteek esan dutena eta nork esan duen
- Adierazpenaren “ahozko hizkera” testu idatzira ekarri behar da
- Ondo aukeratu behar da zer sartu: indarra eman behar dio narrazioari, fidela izan behar du adierazitakoarekin
- Ez da komeni aipu luzeegirik egitea, ematen du kazetariak ez duela asko landu gaia

ESTILO MOTAK

1. Estilo zuzena
2. Zehar estiloa
3. Bitarikoak
4. Interpretatiboa (guk ez dugu erabiliko)

1. ESTILO ZUZENA

Norbaitek esan duena esan bezala idaztea.

- Esaldi osoak ematen dira aipu-marken (‘’) barruan:
TITULUETAN: *Barack Obama: “AEBen eta Israelen arteko adiskidetasuna eternala izango da”*
TESTUAN: *“AEBen eta Israelen arteko adiskidetasuna eternala izango da”, adierazi du Barack Obamak*
- Bi puntuen ondoren letra larria
- Bukaerako puntua, aipu-marketatik kanpo jarriko da beti
Hiesari modu eraginkorrean aurre egiteko, detekzio lasterraren garrantzia nabarmendu du Asier Saez Cirion Pasteur inditutuko ikertzaileak: *“Tratamendu oso goiztiarra jasotzea funtsezkoa da”*.
- Adierazpenaren eta kazetariaren diskurtsoaren artean, koma erabiliko da.

2. ZEHAR ESTILOA

- Ez da aipu-markarik erabiltzen
- Adierazpenak zeharka ematen ditu kazetariak, bere erara, jatorriko hitzen esanahia errespetatuz
- Perpaus osagarriaren bitartez edo zehar galderaren bitartez egin daiteke
- Perpaus osagarriaren bidez:
Txingudi Bizirik taldeak esan du ez diotela txostenik bidali
- Zehar-galdera bidez:
Txingudi bizirik taldeak esan du ea non dagoen txostena.

3. BITARIKOA

- Aurreko bi kasuen arteko konbinazioa da
- Kasu honetan, hitz bat, zerbait benetan aipagarria dena, jarriko da aipu-marken artean
- Esaldi osoa ez da jarriko aipu-marken artean

Etorkinen kanporaketak “banan-banan” aztertuko dituztela ziurtatu dute

Errepidea "gogoetarako tresna" da, Zubeldiaren azken liburuan.

4.INTERPRETATIBOA

- Deskribatu egiten du kazetariak besteek esandakoa
- Aditz egokien bidez egiten du bere lana
- Aditz interpretatiboak: aitortu, gaitztsi, iradoki, iragarri, kritikatu, salatu...
Time aldizkariko kazetariari jarritako zigorra salatu du Pen Clubek

AIPUETAN

- Gutxi asko baino hobeto
- Ez da aipuez abusatu behar, nahiz eta gaur egungo joera horixe den
- Saiatu zure hitzekin hobeto azaltzen hirugarren pertsona horrek esandakoa
- Zure hitzekin ezin baduzu, orduan jarri aipua
- Kazetariak ondo azaltzen jakin beharko ditu beste pertsona baten adierazpenak
- Ohiko hitzak erabiliz gero, hobe zehar estiloa, EZ BITARIKOA
EZ → Ongizate estatuaren egoera "larria" dela esan du lehendakariak
BAI → Ongizate estatua "lehertzeaz" dagoela esan du lehendakariak
- Adierazpenak, neurrian eta neurrikoak
- Nork esan duen ongi adierazi
- Aipuak ez dira betegarri, adierazgarri baizik
- Ez nahastu estiloak
"Umorea eta gogoeta uztartzen" dituela azpimarratu zuen Mujikak
 - Ez zatitu aditza aipu-markekin
 - Aditz nagusia eta laguntzailea batera eman behar dira
 - Aipu-marketatik at*"Umorea eta gogoeta" uztartzen dituela...*
- Ongi bereizi hirugarren eta lehen pertsona
EZ → Entrenatzaileak (3. pertsona) esan du jokalaria onenak zelaraituko dituela "partida irabazi nahi dugulako (1. pertsona)
BAI → Jokalaria onenak zelaraituko dituela esan du entrenatzaileak eta horren arrazoia eman du: "Partida irabazi nahi dugu".
BAI → Jokalaria onenak zalairatuko dituela esan du entrenatzaileak, partida irabazi nahi dutelako.

ATRIBUZIOAK

- Irakurleari argi utzi behar zaio adierazpenak nork egin dituen
- Arau moduan, atribuzioa hasieran jarri, batez ere bi kasutan:
 1. Protagonistaren hitzak lehen aldiz aipatzen direnean
 2. Aipuak luzeak direnean
- Aholku hau are beharrezkoagoa da protagonista biren arteko aipuak tartekatzen direnean
- Hasieratik identifikatu beharko da bakoitza nor den eta zer esan duen
- Protagonista aldatzen bada, atribuzioa aipuen aurretik jarri beharko da, argi uzteko beste pertsona baten adierazpenak sartu direla
EZ → "Aurrekontuak lehenbailen bozkatu behar ditugu", esan du Josu Erkorekak. "Aurrekontuen baiezkora emateko erabat aldatu beharko litzateke...", erantzun du Idoia Mendiak

*BAI→ Josu Erkorekak premiazkoztat jo du akordioa lortzea: “Lehenbailehen bozkatu behar ditugu”.
Idoia Mendiak irmo erantzun dio: “Aurrekontuei baiezkoa emateko erabat aldatu beharko litzateke
Jaurlaritzaren politika”.*

- Ez errepikatu informazioa adierazpenaren sarreran
*EZ→ Hego Europari diru gehiagi ez emateko eskatu du Alemaniak: “Hego Europari ez diogu diru
gehiagorik eman behar”
BAI.--> Nork bereari eutsi beharko diola gogorarazi du Alemaniak: “Hefo Europari...”*
- -(r)en ustez, -(r)en arabera, ...esan duenez,
Maddalen Iriarteren arabera, “Madrilek erabakitzeko eskubidea onartu behar luke”.
Maddalen Iriarteren arabera, erabakitzeko onartu behar luke Madrilek.
Aipu-markarik gabe hobe, ebidentea delako Maddalenen iritzia
Albert Riverak esan duenez, “Madrilek erabakitzeko eskubidea onartu behar luke...”

8. MUNDUA INTERPRETATZEN ETA BALORATZEN

Hedabideek gizarte aldaketen presioa jasotzen dute eta, horrexegatik, borroka politikoak azaltzen diren
guneak dira berak ere

8.1. HEDABIDEAREN LAN-MEKANIKA, INTERPRETAZIO-ERABAKIEN ARRAGOA

Eguneko gaien zerrenda hedabideko staffak lantzen du.

Albistearen tratamendua ere, neurri handi batean ez dago kazetariaren esku. Informazioaren atezainek
erabakitzen dituzte, normalean, albistearen luzera, ikuspuntua, etab.

Lehen orrialdea —azala— da gai-zerrendaren ereduizko isla.

8.2. GERTAKARIAK BALORATZEKO IRIZPIDE PROFESIONALAK

Kazetariak bost ardatz hartzen ditu kontuan mundua interpretatu, baloratu eta albistea ekoizten hasteko:

Gertakarien oinarrizko balioa

1. Protagonistaren garrantzi sozial eta mediatikoa baloratu
2. Irakurle-nazioaren interesa baloratu
3. Jende askoren interesa baloratu
4. Hurrengo egunetan izango duen zeresana baloratu

Gertakariaren ezaugarri bereziak

Hedabidearekin zerikusia duten ardatzak

Hedabidearen ezaugarri teknikoek beren eskakizun propioak dituzte: irudiak baldin badaude telebistarako
egokiak izango dira, etab. Baina, baita ideologikoen ere. Hedabidearen idearioarekin bat ez datozen
gertakariak zailago izango dute argia ikustea hedabide horretan.

Publikoarekin zerikusia duten irizpideak

Gai globala eta generikoa bada ere esku artean hartutakoa, hedabidea saiatuko da gaia bere irakurleari hurbiltzen.

Lehiakortasunaren garrantzia

Besteek baino lehen argitaratzea (primizia) edo besteek ez bezala ematea.

Arriskuak: gezurrak esatea, sentsazionalismoan erortzea...

8.3. CARL WARREN IRAKASLEAREN BEDERATZIKO HANDIA

Zerbait albiste bihurtzeko arrazoiak, Carl Warrenek emanak:

- Gaurkotasuna
- Hurbiltasuna
 - Espaziala
 - Afektiboa
 - Tematikoa
- Gailentasuna: pertsona famatuek interesa pizten dute.
- Ezohikotasuna
- Gatazka
- Suspentsea: ondoren zer gertatuko den galdetzen du irakurleak
- Zirrara
- Ondorioak: irakurlearentzako ondorioak izango baditu gertakariak
- Zerbitzuak: eguraldia, errepideen egoera, ur-etenak, trenetako ordutegiaren aldaketak...

9. INFORMAZIO-ITURRIAK, KAZETARITZAREN GILTZARRIAK

Definizio klasikoaren arabera, informazio iturriak: kazetariari haien borondatez informazioa ematen dioten pertsonak.

Gaur egun, informazio-iturri horiek era askotakoak: berri-agentziak, artxiboak, datubaseak eta hedabideak beraiek, besteak beste.

Guztien helburua: euren komunikazio gaitasuna hobetu eta findu eta etekin mediatiko handiena ateratzea.

Adi egon behar da ematen diguten informazioaren neutraltasunarekin. Iturriek zein helburu eta interes duten jakitea da gakoa. Iturri eta kazetarien arteko harremanak interesatuak dira beti.

INFORMAZIO ITURRI MOTAK:

Quest-France egunkariak lau multzotan sailkatzen ditu iturriak:

1. Informazio-agentziak: informazioa bildu, egiaztatu, osatu, idatzi eta hedatu egiten duten enpresak dira (kazetariak egiten dute lan hori).

Munduko egunkarietan argitaratzen diren nazioarteko informazio guztiaren %90 inguru lau agentzietatik ateratzen da. Hirugarren Munduan biztanleen bi heren bizi badira ere informazioen %25a soilik dator bertatik. Horri kolonialismo informatiboa deritza.

2. Beste hedabideak:

Batzuetan hedabide baten albisteak lekua izango du beste hedabide batean, horren ustez garrantzi handikoa bada. Beste batzuetan, albistea bera gabe, mamia abiapuntu hartuta sortzen da albiste propioa. Egunkari bateko garrantzi handiko informazioa argitaratuz gero, eta beste inork horren berri ematen ez duenean, eskusiba izango da. Hiru aukera daude informazio iturri-gisa erabiltzeko eskusiba bat:

- Eskusiba lortu eta argitaratu duen egunkaria aipatu (etikoena)
- Informazioa hedatzea, baina hura nondik hartu duen azaldu gabe
- Ezer ez aipatzea

KOMUNIKATUAK ETA KOMUNIKATZAILEAK

PRENTSA-KABINETEAK

- Bitartekari lanak egiten dituzte euren erakunde/enpresen eta hedabideen artean
- Kabineteek nolabaiteko harresi informatiboa eraikitzen dute haien erakunde/enpresa babesteko
- Iritzi kontrajarriak prentsa-gabineteen inguruan:
 - Batzuen ustez kabineteak propaganda-tresna hutsak dira
 - Beste batzuen ustez, ezinbesteko informazio-iturriak

PRENTSAURREKOAK

- Prentsaurreko batean kazetariak kontuan izan beharko du informazio-emailea NOR den, ZER dioen eta deialdiaren ARRAZOIA zein den
- Ekimen informatiboaren azaleko eta ezkutuko arazoak dauden
- Informazioa edo propaganda den. Bi titulu, bi interpretazio
 - *Kiroldegia doan izatea erabaki du udalak herritarrei osasuntsu bizitzen laguntzeko*
 - *Kiroldegia doan izatea erabaki du udalak hauteskudeen atarian*
- Ahal dela kazetari aditua joango da
- Prentsaurrekoaren ordena kronologikoari ez dio jarraituko kazetariak testua idazteko
 - Erantzunak galderak baino garrantzitsuagoak izan daitezke: mintzaira, portaera, erreakzioak...
- Gaur egun, zerbait prentsaurrekotan ez da galderarik onartzen

DOKUMENTAZIOA

- Liburuak
- Aldizkari espezializatuak
- Publizitatea
- Foiletoak
- Esku-orriak
- Guztiak kazetariaren dokumentaziorako lanabesak dira informazioak egiaztatzeko
- Enpresa handiek dokumentazio adituak dituzte lanean kazetariekin batera
- Trebatutako kazetariak euren dokumentazio pertsonala izan ohi dute, urteetan pilatutakoa
- Hala ere, gero eta gehiago jotzen da Internetera informazio bila
 - Aurkitutakoa kontrastatu eta frogatu egin behar da
 - Iturrien fidagarritasuna maiz hala-moduzkoa izan daiteke
 - Kontuz plagiorekin!

KAZETARIEN SAREA

- “Kazetari baten ikerketa-lana haren iturrien kalitatearen menpe dago”
- Profesionalek telefonoz deitzen diete gertakari batekin zuzeneko harremanak dituzten lagunei eta beste ikuspuntu bat izan dezaketen iturrietara jotzen dute
- Zenbaitetan adituen beharra izaten dute testuingurua ondo ulertzeko eta irakurleei helarazteko
- Helbide, telefono, kontaktu-sare oparia behar du eskura kazetariak
- Hori urteekin lortzen da
- Hazia erein behar du kazetariak bi aldean arteko konfiantza lortzeko

ITURRIEN SAILKAPENA

Bi iturri mota: iturri pertsonalak eta iturri idatziak edo dokumentalak

ITURRI PERTSONALAK:

Kazetariarekin harremanetan dauden pertsonak. Hiru taldetan sailkatuta:

1. Harremanaren iraupenaren arabera:
 - Iturri iraunkorrak: denbora luzeko harremanak
 - Behin-betiko iturriak: gertakari jakin batengatik egindako harremana
2. Iturriaren egoeraren arabera
 - Publikoak: kargu publiko batean daudenean. Gehienetan arazorik gabe aipa daitezke izenak.
 - Pribatuak: ez daude kazetari askoren eskura. Askotan anonimotasuna nahi dute.
 - Isilpekoak: oraindik eta kazetari gutxiagoren eskura. Aparteko gaiei buruz ematen dute informazioa, eta ezin dira aipatuak izan.
 - Adituak: gai zailak direnean.
3. Iturriak kazetariarenganako hartzen duen jarreraren arabera:
 - Aktiboa: iturria hurbiltzen da.
 - Pasiboa: kazetaria hurbiltzen da. Bi mota:
 - Iturri oztopatzailea
 - Iturri irekia

ITURRI IDATZIAK EDO DOKUMENTALAK

Hiru talde, eskuragarritasunaren arabera:

1. Dokumentu publikoak
2. Pribatuak: sarrera murriztua
3. Isilpeko dokumentuak: publikoak ez du horien berri

ITURRIEN ESLEIPENA:

Hiru esleipen- edo baldintza-mota:

1. *On the record*-eko informazioa: informazioa eta iturria arazorik gabe aipatu daitezke.

2. Atribuzio ezkutuko informazioa: informazioa zabaldu daiteke, iturria ez.
3. *Off the record*: informazioa eta iturria ezin dira zabaldu.

The post egunkariak, horiez gain, beste esleipen-mota bat:

4. Atribuzio zehatzik gabea: taldeko jokalarari baten, etab. aipamena egin daiteke bere izenik esan gabe.

ITURRIKIKO ITUNAK ETA JOKABIDEAK:

Iturrien esleipenak aurrez hitzartzea komeni da. Norbaitek *on the record*-en emandako informazioa ondoren aldatu edo kendu nahi izatea ez da zilegi. Iturriak testua irakurtzen uzteko eskatzea ere ez da zilegi (ez bada zalantzarik dagoela).